

2023an Basque. Music. *showcase*-tan parte hartzeko aukeratuak izango diren taldeak eta artistak laguntzeko irizpideak:

Laguntza honekin, dagokion azokan, Basque. Music. *showcase*-an parte hartzeko aukeratua izango diren taldearen edo artistaren zuzeneko emanaldian eszenatokian egongo diren musikariak, eta beste bi laguntzaile lagunduko dira. Laguntzaile hauek zuzeneko emanaldiarekin edo taldearen kudeaketarekin harremana duten pertsonak izan beharko dute: managerrak, teknikariak (soinua, argia, *backline*-a), kontratazio bulegoko langileak, diskoetxeko langileak edo *road manager*-ak.

Ostatu eta otorduetarako gehieneko gastuak, pertsonako eta eguneko: Espainiar Estatuan egingo diren Basque. Music. *showcase* emanaldietan, hirurogeita hamabost (75) euro ostaturako eta berrogei (40) euro dietarako. Estatutik kanpora, ehun eta hogeit (120) euro ostaturako eta hirurogei (60) euro dietarako.

Ondorengo dietak onartuko dira: Espainiar Estatuan egingo diren *showcase* emanaldiaren egunetakoak, eta joan-etorrietarako beste egun bat. Estatutik kanpora, emanaldiaren aurreko egunekoak eta emanaldiaren egunekoak, eta joan-etorrietako beste egun bat.

c) Automobila erabiliz gero, zero koma hogeita bost (0,25) euro km-ko gehi autopista eta parkinga. Furgoneta erabiliz gero, zero koma hogeita hamabost (0,35) euro km-ko gehi autopista eta parkinga. Kilometro kopurua kalkulatzeko eta ibilgailu bat baino gehiago dauden kasuetan, abiapuntu bakarra hartuko da kontuan.

d) Ibilgailua alokatua denean, alokairuaren faktura, erregaia, autopista eta parkinga.

e) Hegazkina, trena edo bestelako garraio publikoren bat erabiliz gero, soilik maila arrunteko txartela onartuko da. Gastu hauen kopurua kalkulatzeko abiapuntu bakarra hartuko da kontuan.

f) Basque. Music. *showcase*-an parte hartzeko aukeratua izan den taldeko kide hauek ehun eta berregeita hamar (150) euro jasoko dute diru-sari bezala: eszenatokian egongo diren musikariak eta bi laguntzaile.

g) Komunikazioari dagokionez aukeratutako taldeak edo musikariak Basque. Music. aipatu beharko ditu bere komunikazioetan. Gainera, Basque. Music.-ek sare sozialetarako sortuko dituen irudiak bere profiletan partekatu beharko ditu.

BASQUE. MUSIC.